

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Cervantes susmagarri

VALLADOLID, 1605EKO EKAINAREN 27A. Gaspar Ezpeleta zaldun nafarra, Faltzeseko markesarekin afaldu ostean, etxera abiatu zen (bere etxera edo emakumeren baten etxera, andre-zale ospea baitzuen). San Andres auzoan zegoela, gizon batekin egin zuen topo. Gizonak alde egiteko esan zion, liskarrean hasi ziren, eta, azkenean, ezpatak zorrotik atera zituzten. Borroka Ezpeletak galdu zuen eta, larriki zaurituta, laguntza eske hasi zen, oihuka. Handik ordu batzuetara hil zen, hiltzailearen izenik esan gabe.

Ezpeletaren oihuek bizilagunak esnatu zituzten. Zaurituarengana iristen lehenak Esteban de Garibay apaiza eta Miguel de Cervantes idazlea izan ziren, eta azken horren etxera eramane zuten zaldun nafarra. Berehala iritsi zen Cristobal de Villarroel alkatea eta epailea, bi herrizainek lagunduta. Ezpeleta berari, Cervantesi eta Garibayri galdeketa egin ondoren, inor atxilotu gabe eta, itxuraz, susmagarri garbirik gabe utzi zuen krimenaren gertalekua.

San Andres auzoko bizilagun guztiek omen zekiten Andres Ezpeletak harremanak zituela Melchor Galván jaunaren emaztearekin –besteak beste–, eta Galván bera jo zuten susmagarri nagusitzat. Baina Galván Villarroel alkate eta epailearen laguntzailea zen. Laguntzailea babesteko eta arreata desbideratzeko, Villarroelek beste susmagarri batzuk “asmatu” zituen. Isabel de Ayala bizilagunak deklaratuak diren arabera, Cervantesen etxeko emakumeek “zaldunen bisitak izan ohi dituzte, egunez zein gauez”, eta horixe erabili zuen Villarroelek mendekatzailea Cervantes bera izan zitekeela argudiatzeko. Ekainaren 30ean Miguel de Cervantes, Andrea arreba, Constanza iloba eta Isabel alaba Valladolideko



JUAN DE JAUREGUI

Miguel de Cervantes (1547-1616). 1605eko ekainean Gaspar Ezpeleta nafarra hil zuten Valladolideko kaleetan, eta idazle ezaguna susmagarritzat jo eta atxilotu egin zuten.

kartzelan sartu zituzten. Handik zortzi egunera askatu zituzten, haien aurkako inolako frogarik gabe.

Alkateak ez zuen oztopo handirik izan Cervantestarren kartzelaldi labur baina bidegabea agintzeko. Artean, Cervantesek ez zuen gerora lortuko zuen osperik; sendiak eta Miguelek berak kartzela aurrekari zerrenda luzea zuten, orde. Juan de Cervantes aitona Valladolideko espetxean bertan egona zen, emazte kontuak medio. Rodrigo aita ere kartzela berean egon zen, mailegu bat epean ez ordaintzeagatik. Eta Miguelek bost urte eman zituen Algerian espetxeratu Lepantoko gudaren ostean, kartzelaldi laburra jasan zuen Kordobako Castro del Ríon –arrazoiak ez dira dokumentuetan zehazten–, eta Sevillako Errege Espetxea ere zapaldu zuen, diru publikoaz jabetzeagatik.

Ezpeletaren hilketa ez zuten sekula argitu.



Arrastoak

Zuzi olinpikoaren bide laburra

ZUZI OLINPIKOA Atenastik jokoan estadiora eramateko ohiturak ez du jatorria antzina-ko Grezian, askok hala uste badute ere. Egia da Antzin Aroko jokoetako erritualetan suak garrantzi handia zuela, eta gar olinpikoa jokoek iraun artean piztuta atxikitzeak jatorrizko jokoetan duela oinarria. Baina zuziak Atenastik jokoan egoitzara erreleboka egiten duen ibilbidea 1936ko Berlin-ko jokoetan egin zen lehenengoz. Ideia Carl Diem antolatzailearena izan zen, baina ekimenari zukua ateratzeaz arduratu zena Goebbels propaganda ministroa izan zen. Baita ederki egin ere; aurten bezala, II. Mundu Gerra osteko lehen jokoak Londresen egin ziren, 1948an, eta ingelesek nazien ekimena tradizio bihurtzea erabaki zuten.



PETER NEWARK

Zuzi olinpikoa, esbastika artean, lehenengoz estadiora iristen, 1936ko Berlin-ko Olinpiar Jokoetan.